

KONTU BERDEAK-II

Anton Erkorekak Bermeon bildutako kondaira zaharra

Eguraldi txarragatik, baporak lau egun daude etxean. Azkenean eguraldia hoberantz egiten badu ere, oraindik gizonak ez dira itsasoratzen.

Emaztea aspertuta dago gizona etxean ikusten, ezer egin barik eta esaten dio:

- Zer? Noiz goaz itsasora bada?

Eta gizonak erantzuten dio...

- Ehhh, oraindik behea beltz dago (Bermeotarrentzat Bermeotik Oesteruntz "behea" da, eta Esterantz "goia". "Behea" beltz edo ilun egotea eguraldi txarraren itxura du).

Honi andreak esaten dio:

- Bai, bai, hau beste (eskua izter artera eramanez) beltz dago, baina honek ez dizu ikararik ematen.

Anton Erkoreka

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000